





eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco — Euskal Herriko Unibertsitatea

U.P.V/E.H.U

# ZIBERKAZETARITZA IDAZKERA

2018/2019

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
ainara.larrondo@ehu.eus – Kazetaritza II Saila

## II. Atala

## **Ziberkazetaritza-generoak: estiloa, ezaugarriak, erabilerak eta saikapena**

## ZIBERGENEROEN SAILKAPENA

**Informazio-generoak**: albiste-hipermedia eta infografia-multimedia (informazioaren lehenengo maila)

**Interpretazio-generoak**: erreportaje-hipermedia, elkarrizketa lineala eta kronika (informazioaren bigarren maila, gertakaeren sakontzeko generoak)

**Genero-dialogikoak** (talde berria): foroa, txata, inkesta digitalak eta elkarrizketa digitala

**Iritzi-generoak**: zutabea, editoriala, iritzi-artikulua, kritika, etab.

| Lehengo maila **(informazioa)** | Bigarren maila **(interpretazioa)** | **Iritzia** |
| --- | --- | --- |
| Objektibotasuna | Objektibotasuna | Subjektibotasuna |
| • Albistea<br>•Erreportaje laburra edo objektiboa<br>• Infografia | • Erreportaje sakona (erreportaje berezia, literatura erreportajea, etab.)<br>• Kronika<br>• Elkarrizketa | • Editoriala, zutabea, iritzi-artikulua, binetak, etab. |

Genero dialogikoak (interaktibotasuna eta parte-hartzea bultzatzeko)



# Informazio-generoak

## ALBISTEA. Definizioa

- Definizio klasikoak indarrean jarraitzen du

“Gertaera benetakoa, berria, gaur egungoa eta interes orokorrekoa, interpretatua eta baloratua izan ondoren jendartera zabaltzen dena”.

*Berria*-ren estilo-liburuak: “Albistea gaurkotasunari estu-estu loturik dago, eta hauxe dauka helbururik behinena: zer gertatu zen kontatzea, bere soilean, kazetariaren inolako marka pertsonalik gabe […] Hau da, gertaera bati lotutako berria da, zer jazo den ulertzeko oinarrizko testua, nondik norakoak azaltzen dituena”



# Informazio-generoak

## ALBISTEA. Ezaugarri oinarriak interneten

### Aldaketak

- Gaurkotasunaren kontzeptua === **berehalakotasuna** (Albistea gertatu ahala plazeratu)
- **Etengabeko eguneratze**
- **Hipermedia-izaera du** (ez daude albiste-multimediak)
- **Albistearen makroegitura** hipertestuala (piramide iraulia mantentzen da, 5W-ei erantzuten zaie)



# Informazio-generoak

## ALBISTEA. Ezaugarri oinarriak interneten

- Egitura ez lineala (hipertestu-egitura) eta sakontasuna
- Berehalakotasuna eta etengabeko eguneratze
- Multimedia-izaera
- Elkarreragilea



# Informazio-generoaks

## ALBISTEA. Hipertestuko sakontasun-mailak

Albiste hipertestualak gutxienez 3 pantailetan edo mailetan egituratuta daude:

- AURKEZPEN-NODOA, **Lehenen**home edo atalaren orri nagusia): titulua + sarrera (teaser) + lotura osagarriak. Titulua sakatuz bigarren pantailara goaz

- GARAPEN-NODOA, **Bigarren pantaila** edo maila: titulua + sarrera + gorputza + lotura osagarriak (azken hauek sakatuz hurrengo mailara goaz)

- HEDAPEN-NODOA, **Hirugarren pantaila**: lotura osagarriak eskainitako informazioa kokatzen da. Hemendik beste maila batera joateko aukera dago. Ia bukaezina**go pantaila** edo geruza (ziberhedabidearen.

https://www.eitb.eus/eu/albisteak/






EMAKUMEEN MUNDU MARTXA

## Gorputzen Intifadarantz

Maite Asensio Lozano

Lisboan egin ditu azken kilometroak 2015eko Emakumeen Mundu Martxako karabana feministak. Eskubide urraketen aurka andreek abiatutako borrokak aldarrikatu dituzte.



berria

Bizigiro

51 24 0

ATZEKOZ AURRERA

## Gorputzen Intifadarantz

Lisboan egin ditu azken kilometroak 2015eko Emakumeen Mundu Martxako karabana feministak. Eskubide urraketen aurka andreek abiatutako borrokak aldarrikatu dituzte.



Emakumeen Mundu Martxa atzo Lisboako kaleetan, Kurdistandik 13.000 kilometro egin ondoren. BERRIA

2015-10-18 / Maite Asensio Lozano - Berriemaile berezia

Babelgo dorrean adina hizkuntzatan entzun ziren atzo aldarrikapen feministak Lisboan. Kurdistandik Portugalera 13.242 kilometro egin ostean, helmugara iritsi zen 2015eko Emakumeen Mundu Martxaren karabana feminista. Europa osotik heldutako ehunka emakumek —tartean Euskal Herriko berrehun feminista baino gehiago— parte hartu zuten Unibersidade Novan izandako itxiera ekitaldian. Eta oinez egin zituzten azken metroak iluntzean: emakumeen eskubideen aldeko garrasiak hartu zuen hiriburuko erdigunea.

Mundu martxaren pankarta handi batek ireki zuen manifestazioa. «Utzi pasatzen: feministak dira eta mundua aldatzera datoz», abestu zuten portugesez. Atzetik zetozen aldarriak kurdueraz, frantsesez, euskaraz; krisiaren aurka, andrazko guztiekiko elkartasunaren alde... «Gora borroka feminista» oihua ahotan hartu zuten katalanek, eta frantsesak ere katalanez mintzatu ziren: «*Visca la lluita feminista!*». Eta une batzuetan, trikitiaren erritmoan ere dantzatu ziren denak.

Mundu osoko emakumeak libre izatea hartu du xede eta lelo

*Maite Asensio Lozano -*

*Berriemaile berezia*


PUBLIZITATEA
URRIAK 18
OINEZ
HAMABORTZ, AMA BAT
ETORRI BAZTANERAT
ANIMA ZAITEZTE!
HAMABORTZ...AMA BAT
NAFARROA OINEZ 2015 BAZTAN
www.nafarroaoinez.eus



# Informazio-generoak

## ALBISTEA sarean. Idazteko gomendioak

1. **Piramide irauliaren** eskema errespetatu
2. Albisteak **hipermedia** izan behar du; testuak ez ezik, irudiak eta soinuak ere eskainiko ditu
3. Sakontzeko edo **informazio gehigarria** loturen bidez eskaini, ez kargatu testua, pantailan irakurtzea neketsuagoa baita
4. **Laburtasuna, argitasuna, zuzentasuna**
5. Albisteak edozein momentutan berreskura daiteke, beraz, argi utzi albistea **noiz gertatu eta noiz eskegi den** webgunean
6. **SEO gomendioak** jarraitu

   https://www.youtube.com/watch?v=AR7EMqLxYPs



# Informazio-generoak

## ALBISTEA. SEO gomendioak web posizionamendua hobetzeko

**Hitz gakoak** errepikatzen diren neurrian, albistea nabarmentzen laguntzen dute, eta **web-kokapena hobetzen**. Hau da, Interneten albiste bat kokatzen denean aurkitua izateko (ikuspena) hitz gakoen araberakoa izango da.

Albistearen URLa sare sozialetan utzi

SEO estrategia *Twitter*-ean. Albistearen URL-a laburragoa egin (bit.ly) eta lotura berri horretan ere hitz-gakoak erabili

<http://bit.ly/gabonetako-apaingarriak-erosketak>



# Informazio-generoak

## ALBISTEA. SEO gomendioak web posizionamendua hobetzeko

Gako-hitzak ondo aukeratzeko 3 gomendio:

1. **Irakurleen lekuan jarri.** Zein termino erabiliko luke erabiltzaile arrunta batek informazioa hori Google bilatzailean aurkitzeko?

2. Hitzek lor dezaketen **bilaketa-kopurua** konprobatzea. Terminoen lehiakortasun maila konprobatu behar da (eta lehia handiegia dutenak baztertu behar dira). Termino bakoitzeko lehiakide asko dauden ala ez jakiteko **Google Adwords** eta **Google Trends** bezalako tresnak

   https://www.google.es/trends



# Informazio-generoak

## ALBISTEA. SEO gomendioak web posizionamendua hobetzeko

### 3. Non kokatu gako-hitzak?

- Tituluetan
- Loturetan
- Edukiaren URL-an
- HTML <meta name=”description”> etiketa
  ‘Title’, ‘Description’ eta ‘Keywords’ izeneko etiketetan. Hauek HTML barnekodean aurkitzen dira eta edukiak oso zehatz definitzeko balio dute
  **<meta name="keywords“ content=“fracking, arratoiak, ikerketa, hormonak, haustura hidraulikoa"/>**
- Irudien ‘ALT’ eta ‘Title’ etiketetan



INGURUMENA

'Fracking'-ak ugalketa zaildu eta eragozten du

Juanma Gallego | 1

Arratoiekin egindako ikerketa baten bidez atzeman dute haustura hidraulikoan erabili ohi diren konposatu kimikoek ugalketarekin zerikusia duten prozesu hormonalei kalte egiten dietela oso sarritan



# Informazio-generoak

## ALBISTEA. SEO gomendioak web posizionamendua hobetzeko





# Informazio-generoak

## ALBISTEA

**Tituluak idazteko gomendioak**

1. **Titulua independentea da**. Ez du gramatikalki edo sintaktikoki azpitituluarekin loturarik. Ez da testuaren eta beste titulu-elementuen menpeko. Hitzak ez dira errepikatu behar tituluan eta azpitituluan.

2. Albistearen laburpena da, eta **gertaeraren mamia** azaldu behar du. Galdera klasikoei erantzun, gehienetan, zer eta nor(k) galderak



# Informazio-generoak

## ALBISTEA

3. Ahal denean, esaldiaren **osagai guztiak** jarriko dira. Oro har, aditz dinamiko bat jarriko da orainaldian

4. Sareari begira titulatu behar da. Horrek esan nahi du **SEO titulatzeko estiloa** errespetatu behar dela. Gertaeraren hitz gakoetan oinarritutako tituluak. Albistearen web-kokapenean eragin zuzena.

5. Posizionatze-sistemak **titulu informatiboak** hobesten ditu. Bilaketei dagokienez, sormen-tituluak edo literatura-tituluak ez dira egokiak (adierazkorrak edo metaforetan oinarrituak, esaterako)



# Informazio-generoak

## ALBISTEA. SEO gomendioak web posizionamendua hobetzeko

| Informatiboa |
| --- |
| **Berangora itzuliko da Bizkaiko ikastolen festa, 25 urteren ondoren**<br>*Hurbilduko direnei festaren helburu ekonomikoa ez ahazteko galdegin diete antolatzaileek* |
| **Adierazkorra** |
| **Haizea baino azkarrago**<br>*Naoko Takahashik munduko marka lortu du Berlingo maratoian* |
| **Adierazpen-titulua** |
| **Maradona: 'Botereari eutsi nahi dion dinosauroen museoa da FIFA'**<br>*Joseph Blatter FIFAko presidente aukeratu berri dute, eta horri buruz galdetu diotenean arazo barik bere iritzia eman du argentinarrak* |



Lehen orrialdea: Teaser-a
(goi-maila)
Bigarren orrialdea: Sarrera eta gorputza
(bigarren maila)
ETAk su-eten 'iraunkor, orokor eta egiaztagarria' iragarri du
Albisteak
ALBISTEAK
Hirugarren maila:
Informazio osagarria
(bideoak, eralazionatutako
albisteak, etab.)
Iruzkinak:
Erlazionatutako edukiak
Bideoa: ETAren agiri osoa
ETA-k eginiko su-etenak



# Informazio-generoak

## ALBISTEA. Esteka motak

### 1. *Garaperenezkoak*

Albistea garatzen laguntzen dute. Gertaera behar bezala ulertzeko datu eta gertakariei buruzko informazio osagarria eskaintzen dute. Normalean, barne-estekak dira (hedabideak landu dituen beste informazioetara eramaten dute. Gaiarekin zerikusia daukate, eta aurreko albisteak edo iritzi-artikuluak izan daitezke, besteak beste)



# Informazio-generoak

## ALBISTEA. Esteka motak

### *2. Eguneratze-estekak*

*Irakurgai den albistearen ondoren sortutako testuak lotzen dira* esteka hauen bidez. Eguneratze-estekek gertaeren azken xehetasunetara eramaten gaituzte. Normalean, barne-estekak dira



# Informazio-generoak

## ALBISTEA. Esteka motak

### *3. Esleipenezkoak*

*Kazetariak informazioa nondik atera duen azaltzeko erabiltzen dira.* Informazio-iturrietara garamatzate, beraz, **kanpo-estekak** izaten dira.

Kanpo-estekek hedabidearen kanpoan dagoen beste weborri batzuetara eroaten dute irakurlea, eta horiek zorrotz zaintzea eskatzen dute adituek, zeren, erabiltzailea webgunetik irteten denez, baliteke gero ez bueltatzea.



# Informazio-generoak

## ALBISTEA. Interaktibotasuna albistean




1. ***Interaktibotasun selektiboa***
   (loturak)

1. ***Interaktibotasun komunikatiboa***
   (parte-hartzeko)

   a) Sare sozialetarako eskekak (Twitter, Facebook, Delicius, Meneame, etab.) Partekatzeko eta baloratzeko

   b) Lagun bati mailez bidaltzeko

   c) Iruzkinak egiteko



# Informazio-generoak

## INFOGRAFIA. Definizioa

Informazio bat transmititzeko edozein motatako baliabide grafikoak –marrazkiak, mapak, planoak, organigramak– erabiltzen dituen teknika





# Informazio-generoak

## INFOGRAFIA. Definizioa

- Sareko infografikoak ez dinamikoak (mugimendu barik) izan daitezke, baina ez da ohikoena
- Sareko infografikoak interaktiboak dira eta multimedia-izaera dute (integrazioa)
- Genero independientea edo osagarria (albiste konplexuak azaltzen laguntzeko)



# Informazio-generoak

## INFOGRAFIA. Motak (prentsan)

- Estatistika-grafikoak (eboluzioak edo sukarrak, zutabeak edo barrak, zirkuluak, datu-taulak, mapak)



Zentral nuklearrak Asian

Guztira **437** erreaktore daude martxan munduan, hauetako **112 Asiako zazpi herrialdetan**

| | ERREAKTOREAK MARTXAN | ERAIKITZEN | EKOIZPENA 2009 GUZTIRA TWh | % |
|---|---|---|---|---|
| 1 AEB | 104 | 1 | 796,8 | % 20,1 |
| 2 Frantzia | 58 | 1 | 390,0 | % 75,1 |
| **3 Japonia** | **54** | 1 | 260,1 | % 28,9 |
| 4 Errusia | 31 | 9 | 153,0 | % 17,8 |
| **5 Hego Korea** | **20** | 6 | 141,1 | % 34,7 |
| 6 Erresuma Batua | 19 | – | 62,4 | % 17,4 |
| 7 Kanada | 18 | – | 85,3 | % 14,8 |
| **8 India** | **18** | 5 | 14,8 | % 2,1 |
| 9 Alemania | 17 | – | 127,6 | % 26,1 |
| 10 Ukraina | 15 | 2 | 77,8 | % 48,6 |
| **11 Txina** | **11** | 21 | 70,1 | % 1,9 |
| 12 Suedia | 10 | – | 50,0 | % 37,4 |
| **13 Espainia** | 8 | – | **52,9** | **% 17,6** |
| 14 Belgika | 7 | – | 45,0 | % 51,6 |
| 15 Txekiar Err. | 6 | – | 25,7 | % 33,7 |
| **16 Taiwan** | **6** | 2 | 41,6 | % 18,1 |
| 17 Suitza | 5 | – | 26,3 | % 39,5 |
| 18 Eslovakia | 4 | 2 | 13,1 | % 53,5 |
| 19 Finlandia | 4 | 1 | 22,6 | % 32,8 |
| 20 Hungaria | 4 | – | 14,6 | % 42,9 |
| 21 Argentina | 2 | 1 | 7,6 | % 6,9 |
| 22 Brasil | 2 | – | 13,0 | % 2,9 |
| 23 Bulgaria | 2 | 2 | 15,3 | % 35,9 |
| 24 Mexiko | 2 | – | 10,1 | % 4,8 |
| **25 Pakistan** | **2** | 1 | 2,6 | % 2,7 |
| 26 Errumania | 2 | – | 10,8 | % 20,6 |
| 27 Hegoafrika | 2 | – | 11,6 | % 4,8 |
| **28 Armenia** | **1** | – | 2,3 | % 44,9 |
| 29 Eslovenia | 1 | – | 5,5 | % 37,8 |
| 30 Holanda | 1 | – | 4,0 | % 3,7 |
| 31 Lituania | 1 | – | 10,0 | % 76,2 |
| **32 Iran** | - | 1 | - | % - |

Iturria: OIEA / Foro Nuclear
















# Informazio-generoak

## INFOGRAFIA. Motak (prentsan)

- Diagramak





# Informazio-generoak

## INFOGRAFIA. Telebistarako infografikoak








# Informazio-generoak

## Interneterako Infografia

- **Noranzko anitzekoa**: irakurketa ordena aukera anitzekin prestatu behar da

a) Erabiltzailea gal ez dadin atal horietatik guztietatik pasatzean

b) Grafikoa guztiz ulergarria izan dadin osotasunean, nahiz eta irakurketa hori desordenatua izan





# Informazio-generoak

## Interneterako Infografia

- **Osotasun ikuspegia**

Infografiagileak posiblea du erakustea lehen unetik zein izango diren grafikoaren luzapena, tamaina edo pisua, erabiltzaileak etengabe kokatuta sentitzeko





# Interpretazio generoak

## Ziber-erreportajea

- Albisteak errealitatearen 'argazkia' eskaintzen digu, eta erreportajeak, aldiz, horren 'erradiografia', hau da, azalpen sakona, testuingurua, aurrekariak, eta abar.

- Erreportajeak hedabide eta euskarri guztietara moldatzeko gaitasun handia du.



# Interpretazio generoak

## Ziber-erreportajea

- Ziber-hedabideetan erreportajeak bi tipologia ditu:

1. Prentsa idatzian aurkitu dezakegun **GAURKOTASUN-ERREPORTAJEA**, informazio-erreportaje edo erreportaje objektiboen antzekoa (kontaketa **lineala**)

http://elpais.com/agr/los_reportajes_de_el_pais/a/



eitb.com-en erreportajea

Albistea entzun

**Denbora Bankua, krisiari aurre egiteko trukean aritzea**

Erredakzioa - 2011/01/10 |
Iruzkina egin

**Denborarekin ordaintzea zailtasun ekonomikoak ez pairatzeko irtenbide bat da. Hori da, hain zuzen ere, denbora banku baten helburua, zerbitzuak trukatzea eta horiek orduekin kudeatzea.**

1 retweet Partekatu Inprimatu

Irudia handitu

Krisi garaian arazo ekonomikoei aurre egiteko irtenbideen bila aritzen gara. Batzutan, gure bizitzeko era aldatzen dugu eta hori da, hain zuzen ere, denbora bankuek proposatzen dutena; izan ere, zerbitzuen trukearen ekonomia gure poltsikoarentzat oso onuragarria izan daiteke. Euskadin, duela hamarkada bat baino gehiago jarri zituzten martxan horrelako proiektuak eta geroz eta gehiago dira kontsumitzeko era honekin bat egiten dutenak.

Horrela, denbora banku batek gure denbora, trebetasunak eta ezaguerak partekatzea proposatzen digu. Hori da ekimenaren helburu nagusia, besteei zerbitzuak eskaintzen dizkieten pertsonak eta trukean besteek behar dituztenak biltzen dituen erakunde bat izatea. Hori dela eta, krisi garaian, trukean aritzea aurrezteko modu bikaina izan daiteke sendi batentzat.

"Denbora bankua zerbitzuak edo jarduerak trukatzeko biltzen diren pertsonen talde bat da. Moneta denbora, orduak dira", azaldu du Pilarrek, Gasteizko Denbora Bankuko arduradunak. Ezaugarri hauetako banku batean denbora da erabili daitekeen moneta bakarra. Zerbitzu guztiek balio berdina dute, egiteko behar den denbora, eta trukearen unitatea orduak dira. "Batez ere jendeak eskaintzen duen zerbitzua gustuko izatea bilatzen dugu", gaineratu du.

Gizonen eta emakumeen eta adin desberdineko pertsonen arteko kooperazio zerbitzuak



# Interpretazio generoak

## Ziber-erreportajea

2. Bigarren modalitatea ziberkazetaritzaren erreportajearen adibide prototipikoa: **ERREPORTAJE BEREZIA**, berezia, huts-hutsik, edo webgune berezia, txosten edo dossier adierazpenak.

- Erreportaje handiak, superprodukzioak
- Infografiarekin batera ziber-genero garatuenetarikoa
- Erreportaje tradizionalaren funtzio informatzailea eta dokumentala indartzen ditu, sakontasuna areagotzen, hipertestu-egiturari esker
- Testua, irudia, bideoa, audioa, grafikoak



# Interpretazio generoak

## Ziber-erreportajea

Bi elkarreragin mota bereiz daitezke produktu horietan:

*a)* ***selektiboa*** (loturak sakatzean datza) eta

*b)* ***komunikatiboa*** (erabiltzailearen parte-hartze aktiboan datza) inkestak, joko interaktiboak, elkarrizketa digitalak, blogak, etab.



# Interpretazio generoak

## Ziber-erreportajea

- Ez dute **aldizkakotasun** zehatzik

  a) Aurreikusiak  (urteurrenak, ospakizunak…)

  b) Gaurkotasuna iraunkorra (immigrazioa, terrorismoa, langabezia, aldaketa klimatikoa…)

  c) Askotan erreportaje berezien gaiak denbora konkretu batean zehar dirauen jazoera bati buruzkoak dira (kirol-lehiaketak, sari-banaketak, hauteskundeak...)



# Interpretazio generoak

## Ziber-erreportajea

Haien multimedia-izaera dela eta, erreportaje bereziek askotariko euskarri motak erabiltzen dituzte, informazio nagusia testu-formatuan aurkeztua

a) Askotariko formatuak hipertestuaren bidez lotzea (hipermedia) **ERREPORTAJE HIPERMEDIA**

b) Askotariko formatuak mezu bakar batean integratzea **ERREPORTAJE MULTIMEDIA**

ERREPORTAJE HIPERMEDIA (Webgune bereziak azalarekin edo azalarik gabe)

http://www.elmundo.es/especiales/

https://elpais.com/elpais/especiales.html

https://www.berria.eus/bereziak/

http://www.deia.com/especiales

ERREPORTAJE MULTIMEDIA

http://lab.rtve.es/huella-ecologica/es/
http://lab.rtve.es/100-dias-trump



# Interpretazio generoak

## Kronika

| | KRONIKAREN EZAUGARRIAK |
|---|---|
| ***Estiloa eta teknika*** | **Librea**. Kronikak gertaera notizioso batean du oinarri. Estiloak argia, zehatza eta laburra behar du izan; hau da, iluntasuna eta estilo hanpatua alde batera utzita. Hori bai, tituluak esanguratsua izan behar du. Bitxikeriek ere asko "jazten" dute kronika. |
| ***Forma*** | **Informatibo-narratiboa.** Kronikariak ez du *iraulitako piramidearen eskema* derrigorrez jarraitu beharrik. Bai, ordea, gaiaren garrantziak horrela exijituko balio. |
| ***Gaia*** | **Gertaera bera.** Nolanahi ere, kronikariak interpretatu egin behar du jazoera informatiboa. Kazetariak gertaeren gainetik "hegan" egin behar du bere iruzkinak azalduz, esplizituki edo inplizituki. |
| ***Egilea*** | **Kazetaria bera da.** Jazoera eta egilea harremanetan daude momentu orotan, sinbiosi ederrean gainera. "Zer" eta "nola" galdegaiak oso garrantzitsuak dira. Irakurleak kronikari ona bilatzen du. Sinadurak kalitatearen adierazle izan beharko luke. |
| ***Helburua*** | **Informatu eta orientatu.** Kronikariak bere hartzailea gozarazi behar du, atsegin eman. |



# Interpretazio generoak

## ZiberKronika

**Motak**

1. **<u>‘Zuzeneko kronika’ eta ‘azken orduko kronika’</u>** (irrati-estiloa)

- Eredu horretan kirol-kroniketen ‘minutu eta emaitza’ formatua gailentzen da
- Orrialdea minuturo edo bi minuturik behin berriztatzen da

https://www.marca.com/deporte/futbol/seleccion/directo/amistosos/arg-nig.html



# Interpretazio generoak

## ZiberKronika

**2. <u>Blogen bidez bideratzen diren kronikak</u>**

2.1. Berriemaile berezi edo finkoaren kronikak http://www.blogseitb.com/corresponsales/
2.2. Bidaia-kronika

**3. Kronika-hipermedia: kronika-politikoa, zezen-kronika, kultura-kronika, etab.**
http://elpais.com/diario/1997/05/28/cultura/864770414_850215.html

**4. Storify**
http://www.elperiodico.com/es/noticias/internacional/referendum-escocia-storify-3531213

**5. Twitter-kronikak**
https://www.berria.eus/albisteak/151614/zuzenekoa_kanboko_ekitaldiaren_kronika_minutuz_minutu.htm



# Genero dialogikoak

## Elkarrizketa generoa

Elkarrizketak 3 arrazoirengatik egiten dira:

1. Gertakizun edo egintzei buruzko informazioa lortzeko
2. Gai garrantzitsu bati buruzko iritziak lortzeko
3. Elkarrizketatua hobeto ezagutzeko (nortasun-elkarrizketak, sakonak)



# Genero dialogikoak

## Elkarrizketa digitala

**Motak:**

1. **Elkarrizketa hipermedia**

   http://elpais.com/elpais/2015/10/16/eps/1444991480_212093.html

2. **Bideo-elkarrizketak**

   http://www.naiz.eus/es/mediateca/video/entrevista-a-evaristo-autor-de-cuatro-estaciones-hacia-la-locura



# Genero dialogikoak

## Elkarrizketa digitala

### 3. Topaketak (Elkarrizketa digitala edo interaktiboa)

- Komunikabideak aldez aurretik iragartzen du nor izango den elkarrizketatuko den pertsonaia eta noiz erantzungo dien jasotako galderei
- Denbora errealeko elkarrizketa ahalbidetzen dute (bideotxata)
- Komunikabideak eskaintzen du elkarrizketatuaren ibilbidearen laburpen bat
- Audientziaren parte-hartzea eta ziberhedabidearen moderazioa
- Abantailak: irakurleen ezagutza, kalitate handiagoa, galdera zehatzak

http://www.berria.eus/elkarrizketak/

http://www.elmundo.es/elmundo/encuentros/index.html

http://elpais.com/elpais/entrevistasdigitales.html



# Genero dialogikoak

- Foroak
- Inkesta digitalak (kale-inkesta modukoak)
- Txatak
- Albisteen gaineko iruzkinak



# Iritzi-generoak

- Editoriala
- Artikulua
- Zutabea (blog formatua)
- Zuzendariari gutunak (+ iruzkinak)

  http://www.deia.com/opinion/la-opinion-del-lector

  http://www.berria.eus/iritzia

## LABURPENA

Hipertestu/Hipermedia-generoak
Multimedia-generoak
Genero dialogikoak

- **ALBISTEA** (Hipermedia eta interaktibotasuna)
- **ERREPORTAJEA** (Hipermedia zein Multimedia eta interaktibotasuna)
- **INFOGRAFIA** (Multimedia eta interaktibotasuna )
- **KRONIKA** (Hipermedia eta interaktibotasuna)
- **ELKARRIZKETA DIGITALA** (Hipermedia eta Interaktibotasuna)
- **IRITZI-GENEROAK** (Hipermedia eta interaktibotasuna)